




Txikizkako merkataritza %4,9 hazi zen hiruhilekoan

Txikizkako merkataritza guztira
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

2022ko lehen hiruhilekoan, salmentak txikizkako merkataritzan %4,9 gehitu ziren aurreko urtearekin alderatuta. Horri esker, indizea azken hamaika urteetan erregistratutako balioen gainera kokatu da. Elikadurak beherakada txiki bat izan zuen (-%0,7) eta gainerako produktuek dinamismo handiko irudia eskaini zuten (%11,5).

Erregaien salmenta %1,8 jaitsi zen

Erregaien txikizkako merkataritza
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

Aurreko informazioaren osagarri gisa, gasolindegietan automobil gidariei saldutako erregaiak %1,8 murriztu zen urte arteko tasan. Atal honetako indizeak beheranzko profila erakusten du azken lau urteetan, eta asko urruntzen da joan den hamarkadako lehen urteetan erregistratu ziren mailetatik.



EAEEn 914 enpresa sortu ziren martxoa arte

EAEEn sortutako enpresak Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa




Iturria: INE.

Aurtengo lehen hiru hilabeteetan, 914 enpresa eratu ziren Euskadin, guztira 44 milioi euroko kapitalarekin. Horrek esan nahi du enpresen sorrera %6,5 hazi zela aurreko urtearen aldean, eta lortutako zifra hori azken zortzi urteetako handienetakoa izan zela.

EAEko KPI indizea %7,8ra jaitsi zen apirilean

EAEko KPIa Indizea



Iturria: INE.

Apirilean, kontsumoko prezioek hazkunde tasa %7,8ra moteldu zuten, martxoko datua (%9,5) baino puntu bat eta gehiago beherago. Leuntze horren arrazoi nagusia argindarraren prezioa merkatzea izan zen, baina erregaiek ere prezioa jaitsi zuten hilabete horretan 2021eko salneurriarekin alderatuta.